

Mikel Esclamadon

ERRONKAK BETETZEKO PREST



ELKARTEETAN GUSTURA

“Ingurumena eta bioaniztasunari buruzko ikasketak bukatu, bidaiatu eta ondotik aurkeztu zitzaidan Hegalaldia-n [bizitza basatia babesten duen elkarte] lan egiteko aukera. Orduan ezagutu nuen elkartearen mundua eta gustura nabil horretan. Dazkan erronka guztiekin badu bere edertasuna, nahiz eta zaila ere izan. Pertsonalki badakigu ez dugula nagusi batentzat lan egiten, helburu edota zentzu batentzat gabiltza. Bizitzari zentzu bat ematen dio... Horretan laguntzen du behintzat”.

“Geroan ukanen dugun erronkarik handiena euskararen erabilera dugu”

Mikel Esclamadon da Ipar Euskal Herriko AEK-ko koordinatzaile berria. Lekukoa hartu dio azken hogeita hamabi urteetan ardura bete duen Jakes Bortairuri. Betebeharrak eta helburuak ez ditu tikiak, baina motibazioa eta jakin-mina ere hein berekoak ukanki, gustura sentitzen da. Gau-eskolen egoeraz aritzeaz gain, euskalgintzaz zein euskararen normalizaziorantz eman beharreko pausoez aritu zaigu.

 **JENOFA BERHOKOIRIGOIN**

AEKren Ipar Euskal Herriko koordinatzaile berria zaitugu.

Ofizialki otsailean hartu nuen postua, Jakes [Bortairu] azken koordinatzaile izandakoarekin bospasei hilabeteko transmisio fase bat burututa. Informazio anitza eta zabala bazuen transmititzeko, jakinik gainera AEK ez dela erakunde tipia. Irailaren lehenan joan zen erretretara eta orduz gero nabil koordinatzaile bakar gisa.

Nola doa?

Ongi. Korrikaren antolaketarekin hasi nintzen, goxoa eta interesgarria izan zen. Jakes joan ondotik duda fase bat ukan nuen, erreferentea joan eta bakarrik izate horrengatik. Sartze kanpaina betean gainera! Azkenean transmisioa ongi egin da eta erran nezake sartzea ongi pasa dela. Geroz eta hobeto nago postuan, gaiak geroz eta hobeto menperatuz. Kanpotik ezagutzen nuen mundu bat barnetik deskubritzen nabil poz eta interes handiarekin.

Zerk motibatu zintuen postu horretara?

Garaian langabezian nintzen baina

aitzin horrelako lan bat nuen, Hegalaldia elkartearen. Nahiz eta animalien artatze arloan izan, proiektuen koordinazio eta jendeen kudeaketaren ardura nuen. Horretan plazer hartzen nuen eta jakin nuenean AEK-k koordinatzaile bat behar zuela, hitz egitera hurbildu nintzaion Jakesi, xehetasun gehiago ukan nahian. Pertsonalki, bizitzan erronkak eramatea maite dut, gauza berriak deskubritzea; lanpostu horrek hori eskaintzen zidan. Euskararen inguruan izateak, euskaraz lan egiteak ere bazuen garrantzi handia.

Nolakoa da Ipar Euskal Herri mailako gau-eskolen mapa?

Hamabost bat gau-eskola ditugu hiru probintzietan hedaturik, aurtun 1.100 ikaslerekin, hots, azken urteetako batez bestekoan mantentzen gara. 50 bat langileko ekipoa dugu, boluntario eta guztiak kontutan harturik urtean zehar 80-90 langile izaki orotara. Gau-eskolez gain, Xede eta 6H formakuntzak ere baditugu, sail profesionalekoak izaki horiek. Xeden erakunde publi-



“INSTITUZIOEK LEKUKOA HARTU BEHAR BADUTE ERE, GIZARTEAK BEHARKO DU LAN HORI AKUILATZEN ETA INDARTZEN SEGITU. GIZARTE OSOAREN BEHARRA IZANEN DU EUSKARAK”.

koetatik etorritako langileak dira eta 6Hn lan bilaketan edota sail aldaketan direnak.

Garrantzi handikoak azken bi horiek ere.

Ipar Euskal Herria euskalduntzeko eta eremu profesionalean euskaldun hitunak ukateko bidean biziki garrantzitsua da. Helburua ez dugu euskara irakastea bakarrik, erabilera ere landu eta azkartu nahi dugu. Xede duela hamabost urte sortu genuen eta aurtun 180 ikasle biltzen ditu, 6Hn berriz 35 bat dira. AEKren erronka nagusietariko dugu doakotasunarena. Sail horiek horretara laguntzen dute, sail profesionalean diren dirulaguntzak bideratzen ditugulako.

Erabilera aipatu duzu. Ipar Euskal Herriko testuinguru linguistikoa nolakoa ikusten duzu?

Geroan ukanen dugun erronkarik handiena erabilera dugu. Euskal hitunak sortzen badakigu, baina ikasle izatetik euskaldun aktibo izaterako salto horretan dugu erronka, gauditu ez duguna uste. AEK-k badu bere zeregina,

baina gizarte guztiak eta oroz gainera instituzioek eta politikoek dute zeregin handia. Euskarari zor zaion tokia eman behar zaio administrazioan zein karrikan, normalizazio egoera batera iritsi arte.

Erabileraren arora heltzeko zein dira ezinbesteko osagaiak?

Ez naiz instituzioan ordez mintzatu baina euskararen ezagupena ezinbestekoa dugu, ofizialtasuna ez bada, behintzat koofizialtasun egoera behar dugu, zeinetan euskarak bere lekua duen, administrazioetan, eskoletan, bide seinaleetan, karrikan.

Ezagupenik gabe bizirik dirau euskarak Ipar Euskal Herrian.

Gure arteko gizarteari esker, hau da, herri mugimendua deitzen dugunari esker, azken urte eta hamarkadetan izandako lan eta borroka guztiei esker. Horrek gaitu gaur egun dugun egoerara arte eramanez. Instituzioek lekukoa hartu behar badute ere, gizarteak beharko du lan hori akuilatzen eta indartzen segitu. Gizarte osoaren beharra izanen du euskarak.

Instituzio eta herrigintzaren arteko elkarlanerantz goaz geroz eta gehiago. Zerk segurtatuko digu elkarlan emankor bat?

Demagun, Euskaraldiak arrakasta polita lortu zuen eta bide horretatik segitu behar dugula uste dut. Momentuko hamar-hamabost egun artean dugu, baina 365 egunez behar genuke ukan. Hori dugu helburu eta horretan ari gara instituzio publikoekin bilduz, politika berriak sortuz. Guk badugu terrenoko ikuspegia, haiek terrenotik heldu diren ideiak eramateko, bozkarazteko eta gauzatzeko indar politikoa. Duela hogeita hamar urte mahai baten inguruan jartzea ezinezko bazitzaigun, gaur egun posible dugu eta hori baikorra da. Baikorki ikusi behar dugu geroa... badugulako zer egin!

Beharra alde batera utzirik, zu baikor zara?

Bai. Nire filosofia ere bada beti aurrera begiratzea, erronkak lortuko direla pentsatuz. Baikorra izan behar da. Noski, errealista ere bai, badakigulako ez dela dena arrosa eta polit. ●